

## NOLA SORTU TESTU ELEBIDUNAK ITZULPENETARA JO GABE

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Otsailak 8, 15, 22	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	<b>30. gela, IVAP</b> Eusko Jaurlaritza Donostia-San Sebastian kalea,1 Vitoria-Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	12 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00-13:00
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Urtarrilaren 25era arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Otsailaren 1era arte
<b>IKASLE KOPURUA</b>	15 gehienez ere	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Ikastaroan parte hartzeko, ezinbestekoa da gutxienez 2. HE gainditua izatea eta euskaraz aritzeko ohitura izatea.
<b>IRAKASLEA</b>	Edorta España Ocio	<b>MATERIALA</b>	Ariketak egiteko, fotokopiak banatuko dira
<b>DISEINUA</b>	Edorta España Ocio	<b>AZPIEGITURA</b>	Ordenagailua eta arbela

### ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU OROKORRAK**

Testu elebidunak sortzeko teknika lantzea.

**HELBURU ZEHATZAK**

- Testu elebidunak sortzean kontuan hartu beharreko hainbat irizpide ezagutu, landu eta praktikan jartzea.
- Testu laburrak landuko dira.
- Eta, zeharka, administrazio-testuak idazteko gaur egun planteatzen diren bide berriak ezagutarazi eta praktikatzea.

**GAITASUNAK**

Ikastaroan parte hartzen dutenek testu elebidunak idazteko hainbat hizkuntza-baliabide eskuratuko dituzte.

## NOLA SORTU TESTU ELEBIDUNAK ITZULPENETARA JO GABE

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

**METODOLOGIA**

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Hala ere, azalpen teoriko arinak ere eskainiko dira, bai eta hainbat orientabide eta irizpide aplikagarri ere.

**PROGRAMA**

Azalpen teoriko arinak eman ondoren, sei testu-mota landuko dugu: gutunak, ofizioak, iragarkiak, bandoak, erabaki errazak eta inprimakiak. Ariketa asko egingo ditugu.

**EBALUAKETA**

Berariazko ebaluazio-saiorik egingo ez bada ere, ebaluazio jarraia erabiliko dugu aprobetxamendua baloratzeko, hau da, kontuan hartuko da ikasle bakoitza noraino jabetu den teknikaz.

**IKASTAROAREN  
BALORAZIOA**

- Ikasleen gogobetetze-inkesta
- Irakaslearen balorazio-inkesta

**ZIURTAGIRIA:  
APROBETXAMENDUA**

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

145 €

**PREZIOA**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

**OHARRA**

Ikastaro hau modu egokian bideratu ahal izateko, lanean sarritan erabiltzen duzuen idazkiren bat bidaltzeko eskatzen dizuegu, ikastaroa hasi baino pare bat aste lehenago [ikasivap@ivap.eus](mailto:ikasivap@ivap.eus) helbidera.